

Rosa Maria Martín Salazaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Kubako turista akzidentala

Udan bi milioi pasatxo turista izan da Kuban. Beste herri guztietan ez bezala, gehienak iritzi-emaile eta aditu bilakatu dira etxera itzulita-koan. Ez ikusitako paisaiaz eta patxada ederrean dastatutako gastronomiaz edo kulturaz. Egun batzuk hoteletik hondartzara igaro, malekoian buelta erdia eman, nahikoa izan dute gehienek Kubako sistema sakonki ezagutzeko, Kubak dituen gaitzak antzemateko, eta lau haizetara zabaltzeko. Behin etxera itzulita, berehala aurkitzen baitu bidaia horrek Kubaz alde aurretik hedatuta zeuden aurreiritziak argitaratzeko aukera emango diona.

Kubako hedabideei buruzko ikerketa egitera nindoala esan diodanean, ezkerreko pedigridun turista horrek txistea bota du: “Egun bateko lana izango da, ezta?”. Blokeo mediatikoaren aldeko berri-lapiko horrek hedabide bakarraren mitoa zabaltzen lagundu nahi duelako. Baina hamaika milioi biztanle dituen herri honetan hamaika baino gehiago dira hedabideak. Eta ez dut uste beraien lerro editorialetan hemengoetan baino aniztasun gutxiago dagoenik.

Kubako iraultzaren hasierako urteetako asmakaria da *coletilla* delakoa edo bukaerako argibidea. Komunikabideetako langileen esku-bide xelebrea: egunkariaren jabeak agindu beza-la albistea idatzi bai –hemen bezalaxe–, baina



INIGO AZKONA

gero azpiko ohar batean: “Albiste hau ez da guztiz egiazkoa, eta kazetaritza etikaren aurka doa”. Hori balego gure inguruan...

Oso zaila da mitoen aurka borrokatzea. Mito gehienak indarrean dagoen botere-sistemari eusteko erabiltzen dira, botere ekonomikoa, politikoa, sinbolikoa... Eta 50 urte hauetan gaitzetsi duten herriaren aurkako blokeoa genozidioa balitz? Aginte mediatikoak behar dituen mito egokiak hedatzen laguntzen dionari ematen dio espazioa, hitza, saria.

Mexikon beste oporraldi bat igaro ondoren, gure turistak artesania azteka eta pipermina ditu hizpide. Berba bat ere ez han eraildako kazetariez, pobrezia kapitalistaz. Kubatik bueltan, aitzitik, aldaketa politikoak aldarrikatu ditu, demokrazia eta askatasunaren izenean. Alajaina!

Euskal Herrira ere hainbat turista etorri da aurtan. Zer idatz lezakeen turista akzidentalak uda hasieran pasaportea berriztatzeko zeuden ilarei buruz –Kuban burokrazia?–. Edo Bizkaian gehien irakurtzen den egunkaria ikusita, argi izango luke zein den hemen gehien iragarritako zerbitzua –non sexu esklatutza?–.

Kuba eta Euskal Herria ez dira kolore bakaerrekoak. Biek pairatzen dute gainasetasuna hedabideetan. Turistarik gabe erabaki beharko du bakoitzak noranzko aldaketa nahi duen. ■

«
Mito gehienak indarrean
dagoen botere-sistemari
eusteko erabiltzen dira
»

TXANDAN

Castillo Suarez



Orratzez iltzatutako tximeletak ditut gogoa. Haur ankerrak ginen batzuetan. Era guztietako intsektuak –batez ere tximeletak– harrapatu eta orratz batez kortxo batera lotzen genituen, bizirik. Zomorro haiek zenbait orduz egoten ziren hegalak mugitzen. Beharbada ez ziren orduak, minutuak baizik, baina hil hurren ziren une horiek luzeak egiten zitzaizkigun oso. Handik egun batzuetara tximeletek beren edertasuna galtzen zuten gure hatzetan itsasten baitziren hegaletako hauts koloredunak eta gure bildumak

Tximeletak

bota egiten genituen zakarrontzira. Gure artean bazen neskato bat onberatzat genuena. Ihes egiten zuen animaliekin barrabaskeriak egiten ikusten gintuenean. Behin jakari lotu genion kakalardo bat eta jantzi zuen arte ez zen konturatu. Ez zigun oihurik bota. Kontu handiz orratza kendu eta lurperatu egin zuen xomorroa, penatua. Ez dakit noiz galdu zuen besteen sufrimendua ezin pairatzeko sen hura. Zerk narkotizatu zuen, baina neska horrek ez du berdin sufritzen. Nolanahi ere, seguru nago memorian iltzatua duela egun hura –dugula, alegia. ■